



Usurbilgo Udala

## **USURBILGO UDALEAN LAN KARGARI AURRE EGITEKO OPERARIO PLAZA BITARTEKO FUNTZIONARIOZ BETETZEKO HAUTAKETA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK.**

*Lehenengoa. Deialdiaren xedea.*

Deialdi honen xedea, Udal Brigadako peoi lanpostuetan dagoen beharra betetzea eta udalaren lan-poltsari hautagai berriak gehitzea da, lanpostu hauen inguruan aurreikusten diren bitarteko funtzionario beharrei erantzuna emateko, oposizio sistema erabiliz.

Prozesua gainditzen duten hautagaiak udalak daukan lan-poltsara gehituko dira, beti ere aurrez dagoen lan poltsaren hurrenkera errespetatuz.

Plaza hori Administrazio Bereziko Eskala, Zerbitzu Berezien Azpieskala eta Lanbideetako langileen motakoa da.

Kalifikazio onena lortzen duen pertsona Zerbitzuak eta Mantenua saileko Operario laguntzaile lanpostuari atxikiko zaio E mailako, bitarteko izaeraz. Lanpostuari lan hitzarmeneko 7. mailari dagokion ordainsaria dagokio eta 1. hizkuntza- eskakizuna.

Behar den gutxieneko titulazioa eskola-ziurtagiria da eta B motako gida baimena izan beharko du.

Bere kasuan aurrera eramango den izendapena bertan behera geratuko da, titularra bueltatzen denean, kontratuaren epea baktzean eta plaza behin betiko hornitzen denean, dagokion oposizio-lehiaketa burutu ondoren.

Egun osoko lanaldia izango du eta lanaldia eta ordutegia urtero Udalak erabakitzen dituenak izango dira, beti ere zerbitzuen beharren arabera.

Prozesua gainditzen duten gainontzeko izangaiak udalak daukan lan-poltsara gehituko dira, beti ere aurrez dagoen lan poltsaren hurrenkera errespetatuz. Usurbilgo Udalak antzeko eginkizunak dituzten peoi lanpostuetan izan ditzakeen aldi baterako beharrak betetzeko.

*Bigarrena. Eginkizunak.*

1. Igeltseritza lanetan lagundu, Igeltsero arduradunaren jarraibideak jarraituz: zangak ireki eta itxi, ormak eta trenkadak bota, masa egin, materiala kargatu eta deskargatu, bidezulo eta espaloi-



Usurbilgo Udala

zuloak konpondu etab.

2. Lorezaintza lanak burutu lorazainaren aginduak jarraituz: zuhaitzen landaketa, garbiketa lanak, landareen landaketak, gunee berdeen mantentzea, zuhaitz, zuhaizka eta soropilen mozketak, inguru berde eta lorategien txukuntze lanak, etab.
3. Iturginari lagundu: kontadoreen irakurketa, kontadoreak aldatu, ur deposituak kontrolatu, ura kloratu, saneamendu, hustubide eta estolderian garbiketa lanak...
4. Elektrikariari lagundu instalakuntza elektrikoen mantentze lanak burutuz.
5. Kale garbiketako lanak burutu, arduradunaren aginduak jarraituz.
6. Hilerrietako mantentze lanak, ehorzketa lanak, lorezaintza lanak... burutu, arduradunaren aginduak jarraituz.
7. Barneko eta kanpoko pintura lanak egin.
8. Era desberdinetako instalazio lanak burutu: habeak, gapirioak, hesiak, seinaleak, oholtzak, pertsianak, etab. instalatu.
9. Esleitzen zaizkion materialen eta tresnen kontrola eraman eta arduradunari horren berri eman.
10. Eguneroko laneko parteak bete.
11. Lankideei lagundu lan pilaketa uneetan.
12. Saileko arduradunak hala ezartzen duenean, saileko gainontzeko lanpostuen ordezkapenak burutu, horretarako beharra dagoenean (bajak, oporraldiak, etab.), bere lanpostuaren kategoria eta gaitasunak kontutan izanik.
13. Langileen hautatze prozesuetan parte hartu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datorrenean.
14. Zehaztutako helburuak lortzeko beharrezko diren eta horrela eskatzen zaizkion beste edonolako lanak burutu, bere lanpostuaren sailkapenarekin bat datozenak.

*Hirugarrena. Izangaien baldintzak.*

Lanpostu hori eskuratzeko, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Europar Batasuneko kide diren estatuak baten herritartasuna izatea, edo, Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsita Nazioarteko Itunei jarraiki,



Usurbilgo Udala

langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango du, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatuetako herritarren ezkontideak, beti ere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagokoak badira, eta adin horretatik gorako mendekoak.

- b) Hamasei (16) urte beteta izatea eta nahitaezko erretiroko adina ez gainditzea.
- c) Eskola-ziurtagiria izatea gutxienez eta B gidatzeko baimena izatea.
- d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala edukitzea.
- e) Eskatutako euskarazko 1. hizkuntza-eskakizunaren egiaztatzea.

Eskakizun hau 1. hizkuntza eskakizunaren pareko mailari dagokion azterketa eginez egiaztatu ahal izango da hautaketa prozesuaren barne; nolahi ere, hizkuntza eskakizunaren edo baliokidearen jabe dela egiaztatzen duenak ez du azterketarik egin behar, horretarako, izangaiek inguruabar hau beren eskaeran jasoarazi behar dute, eta eskaerarekin batera dagokien egiaztatzea aurkeztu behar dute.

- d) Diziplina espediente bidez estatuko, autonomi erkidegoetako edo toki-erakundeetako zerbitzutik kanporatu ez izana; eta funtzio publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea ebazpen judizial bidez.

Aipatutako baldintza guztiak bete behar dira eskariak aurkezteko epea bukatzen denerako, 1. hizkuntza eskakizunarena salbu.

*Laugarrena. Eskabideak aurkeztea eta agiriak.*

Hautaketa prozesu honetan parte hartu nahi dutenek, Lanbideren bidez eskaria eginez edo Usurbilgo Udaleko alkate-lehendakari jaunari zuzenduko dizkiote onartua izateko eskabideak. Eskabideak Oinarri hauen I. Eranskin gisa doan inprimaki ofizialaren arabera aurkeztu behar dira.

Instantzia guztiek baldintza hauek bete behar dituzte:



Usurbilgo Udala

a) Izangaiek adierazi behar dute hirugarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, betiere eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako.

b) Eskabidearekin batera honakoak aurkeztu beharko dira: Nortasun Agiriaren kopia, eskaturiko tituluaren, kasua bada, 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen dokumentuaren kopia eta B gida baimenaren kopia.

Eskaerak aurkeztu ahal izango dira ekainaren 7a arte.

Eskabideak posta bulegoetan aurkezten badira, epea amaitu baino lehenago egin beharko da, gutun azal irekian, postetxeko funtzionarioak behar bezala data jarri eta zigilua eman diezaien. Horrela eta ez bestela ulertuko da postetxean aurkeztutako egunean sartu zirela eskabideak.

*Bosgarrena. Izangaiei onarpena.*

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Alkatetzaren erabakia emango da, eta onartutako eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda onartutzat joko da. Zerrenda hori Udaleko web orrian jarriko da ([www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)) eta hautagaiek 2 laneguneko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko, iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Zerrendarekin batera, epaimahaia nork osatuko duen argitaratuko da, bai eta aurreneko ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua ere.

Erreklamaziorik edo zuzenketarik egon ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da, eta egonez gero, onartu edo baztertu egingo dira, adierazitako moduan argitara emango den behin betiko zerrenda onartzeko beste erabaki baten bidez eta erabakia interesatuari jakinaraziz.

*Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.*

Epaimahai kalifikatzailea ondorengo era honetan osatuko da:

Mahaiburua:



Usurbilgo Udala

- Udal Brigadako burua edo hori ordezkatu duen funtzionarioa

Mahaikideak:

- Ingurumen teknikaria edo hori ordezkatu duen funtzionarioa.

- Brigadako funtzionarioa edo hori ordezkatu duen funtzionarioa.

- Brigadako funtzionarioa edo hori ordezkatu duen funtzionarioa.

Idazkaria:

- Pertsonalgo administraria edo hori ordezkatu duen funtzionarioa.

Halaber, epaimahaiak deialdi honetan eskatzen den euskara maila egiaztatzeko Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria saileko buruaren edota euskaltegiaren laguntza izango du.

Epaimahaikideak Alkateak izendatuko ditu. Epaimahaikideen izendapena Udaletxeko web orrian argitaratuko da. Epaimahai kalifikatzaileko kideek ezingo dute eskuhartu, Alkateari jakinaraziz, 40/2015 Legeko 23. artikuluan xedatutako gorabeherak gertatzen badira. Baita ere Lege berdineko 24. artikulua xedatzen duen arabera errefusatu ahal izango da.

Epaimahaia ezin izango da eratu eta, hortaz, ez du jarduterik ere izango Epaimahaiko Lehendakaria, Idazkaria eta kideen erdia baino gehiago bertan ez badago.

Erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira, berdinketa emanaz gero Epaimahaiko Lehendakariaren kalitatezko botoak erabakiz.

*Zazpigarrena. Oposizioa.*

Ariketa guztiak, derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira. Deialdi bakarrean eramango dira aurrera

— *Lehen ariketa: Froga praktikoa.* Lanpostuaren oinarrizko funtzioekin zerikusia duen ariketa praktikoa.



Usurbilgo Udala

0-10 bitarteko puntuazioa izango du eta gainditzeko beharrezkoa izango da gutxienez 5 puntu lortzea.

—*Bigarren ariketa: Euskarako froga.*

Lanpostu honentzat derrigorrezkoa den 1. hizkuntza eskakizunaren parekoa egiaztatu beharko da eta ariketa «gai» edo «ez gai» gisa kalifikatua izango da. Azterketa hau gainditzeak ez du suposatuko 1. hizkuntza eskakizuna era ofizialean lortzea, IVAP-HAEE-ek bakarrik duelako eskumen osoa egiaztapen hau onartzeko. Dena dela, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikularen arabera, ariketatik libre geratuko dira 1. hizkuntza eskakizuna edo parekoa dutela agiri bidez frogatzen dutenak.

*Zortzigarrena. Ariketak kalifikatzea, epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.*

Epaimahaiak Usurbilgo udalaren web orrian ([www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)) argitara emango ditu hautaketa prozesua gainditu duten izangaien izenak.

Azterketaren berrikuspena emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 2 laneguneko epean eskatu ahal izango da. Epe horretan aurkeztu beharko dira, hautagaiak egokitzat jotzen dituen alegazio eta inpugnazioak ere.

Hautaketa prozesua gainditu duten gainontzeko izangaiak udalak daukan lan-poltsan gehituko dira, beti ere aurrez dagoen lan poltsaren hurrenkera errespetatuz. Usurbilgo Udalak antzeko eginkizunak dituzten peoi lanpostuetan izan ditzakeen aldi baterako beharrak betetzeko.

Horretarako dei egiten zaionean, lehenengo postuan geratu den izangaiak hautaketa prozesuan parte hartzeko oinarrien hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko jatorrizko agiriak aurkeztu beharko ditu.

Horretaz gain, inolako ezgaitasun edota bateraezintasunezko lege-kausaren batean sartua ez izateko baldintza lanean hasten denean bete beharko da, Herri Administrazioen zerbitzuan diren langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusita dagoenaren arabera.

Dagokion epealdian, eta ezinbesteko arrazoiek oztopatu ezean, proposatutako izangaiak ez balu eskatutako dokumentazioa aurkeztuko, edo dokumentazio hori aztertu ondoren aterako balitz eskatu diren baldintzetakoren bat ez duela, ezingo zaio kontraturik edo izendapenik egin eta



Usurbilgo Udala

indarrik gabe geldituko dira hari buruz egindako jarduera guztiak, faltsukeriagatik eska lekizkiokeen erantzukizunen kalterik gabe. Horrela gertatuz gero, puntuaketa zerrendan ondoren datorren izangaiaren aldeko proposamena egingo du horretarako eskuduntza duen organoak, eskatutako baldintzak beteko balitu, beti ere.

Era berean, lan-poltsa osatzen duten izangaiek ere, Udaletik aldi baterako beharrak asetzeko lanerako deitzen zaienean, lanean hasi aurretik oinarrien hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte.

*Hamargarrena. Gorabeherak.*

Epaimahaiak sortzen diren zalantzak argituko ditu, eta hautaketa prozesua ondo joan dadin beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

Oinarri hauetan zehaztuta ez dauden kasuetan ondorengo xedapenak aplikatuko dira: Martxoaren 10eko 364/1995 Errege-dekretua, Estatuko Administrazioan langileak sartzeko Arautegi Orokorra onartzen duena, uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legea, 5/2015 Enplegu Publikoaren Estatutuaren Legea, eta horiekin bat datozen xedapenak.

*Hamaikagarrena. Aurka egitea.*

Interesatuak oinarri hauen kontra egin ahal izango dute, indarrean dagoen Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako modu eta epeetan.

*Hamabigarrena. Izaera pertsonaleko datuak.*

Izangaien izaera pertsonaleko datuak fitxategi batean sartuko dira. Fitxategi hori Udaleko Idazkaritzak kudeatuko du, eta aukeraketa-prozesua kudeatzeko erabiliko da. Izangaiek fitxategiko datuetara sartzeko, datuak ezeztatzeko, haien kontra agertzeko edo zuzentzeko eskubidea izango dute.



Usurbilgo Udala

## I. Eranskina

### ESKAERA ORRIA

<b>SARRERA ERREGISTROA</b>		<b>Deialdia</b> 2 OPERARIO PLAZA		
<b>1. DATU PERTSONALAK</b>				
1. deitura		2. deitura		Izena
NAN	Harremanetarako telefonoa/k		Jaioteguna	
Helbidea			Herria	Posta kodea
Probintzia				

## 2. TITULAZIOA

### Deialdian eskatutako titulazioa

TITULUA	EMAN ZENEKO ZENTRUA ETA HERRIA	LORTZE DATA

### ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK

Nortasun Agiriaren kopia

Eskatutako titulazioaren kopia- Eskola ziurtagiria

B motako gida baimenaren kopia

1.Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiriaren kopia (edo baliokide den tituluarena)

Behean sinatzen duenak, eskaera hau dagokion hautaketa prozesuan onartua izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta eskatutako baldintzak betetzen dituela BAIEZTATZEN DU.

**Data**

**Sinadura**